

# Movistar Plus+en *Marbella* jatorrizko telesailaren estreinaldi eksklusiboa izango da CROSSOVER festibalaren osteguneko programazioan

## Jaialdiak Iker García Barrenetxea margolaria eta Prime Videoren *Reina Roja* jatorrizko produkzioaren VFXei buruzko hitzaldi bat ere izango ditu

Bihar, apirilaren 25ean, ostegunean, CROSSOVER Tabakalerara itzuliko da. Eguneko programazioa 2de0 Tabakalerako Ikus-entzunezko Laborategian hasiko da, **Iker García Barrenetxea** protagonista izango duen «**Ikusle Gonbidatua**» saio batekin. Barrenetxea margolari eta galerista Donostiara itzuli da galeria bat zuzentzera, Erresuma Batuan 15 urte eman ondoren, tartean The Vyner Studio Artist Run Space zuzentzen.

Orobat, Tabakalerako Ikus-entzunezko Laborategian, 18:30ean, Prime Videoren *Reina Roja* jatorrizko telesailaren unibertsoa birsortzeko unea iritsiko da. **Adriana Izquierdo** ekoizle exekutiboak, **Koldo Serra** telesailaren zuzendariak eta **Fernando Guerrero** VFX artistak *master class* bat eskainiko dute. Bertan, liburutik pantailarako bidea egingo dute, telesailean erabilitako efektu bisualak aztertuko dituzte **Antonia Scotten** buruan barneratzeko, eta telesaileko ekintza-eszena harrigarriak nola gauzatu zituzten erakutsiko dute.

20:00etan, Tabakalera Zineman, CROSSOVER festibalak beste estreinaldi eksklusibo bat eskainiko du: **Marbella**, **Hugo Silva** protagonista duen Movistar Plus+ plataformaren jatorrizko telesail berria. Costa del Solen jarduten duten mafiak ekarriko dizkie ikusleei *thriller* zirraragarri batean.

Telesaila aurkezteko, talde tekniko eta artistikoaren ordezkari ugari izango dira proiektzioan. **Juan Sanguino** kazetari eta idazleak moderatuko duen mahaiaren bueltan izango dira **Dani de la Torre** eta **Alberto Marini** sortzaileak, **Fran Araujo** eta **Juanma Pagazaurtundua** produktoreak eta protagonistetako bi, **Elvira Mínguez**, Goya sariaren irabazlea, eta debuta egin berri duen **Khalid el Paisano** (karrera musikal arrakastatsu baten ondoren, protagonistaren rola bete du lehen aldiz *Marbellan*). Estreinaldirako sarbidea gonbidapen bitartekoa da, doan lor daitezkeenak [www.crossoverseriesfestival.com](http://www.crossoverseriesfestival.com) webgunean.

Komunikabideekin elkarrizketak egiteko prestasuna

*REINA ROJA* (Prime Video) telesaileko **ADRIANA IZQUIERDO**, **KOLDO SERRA** eta **FERNANDO GUERRERO** 14:00etan iritsiko dira Donostiara.

*MARBELLA* (Movistar Plus+) telesaileko **DANI DE LA TORRE**, **ALBERTO MARINI**, **FRAN ARAUJO**, **ELVIRA MINGUEZ** eta **KHALID EL PAISANO** 14:00etan iritsiko dira Donostiara.

**MARBELLA TALDEAREN HEDABIDE GRAFIKOEN DEIALDIA 19:30etan TABAKALERAN**